



# Arditurriko bide berdea

**Hasiera:** Erreterria

**Iraupena:** 11,5 km

**Sarbidea:** Hasteko lekurik aproposena Erreterriako La Fandería parke eta bidegorria da. Dena den, GI-3420 errepideak Oartzuneko Iturriotz, Altzibar eta Ergoien auzoak zeharkatzen ditu. Hortaz, biderako sarbidea erraza da.

Bide berde honek Pasaia badiako Aiako harrien parke naturaleko meategiekin lotzen du. Trenbide hau mendietako mineralak Bizkaiko industria gunera helarazteko eraiki zuten, eta 1966an itxi zuten.

Pasaia Antxo eta Erreterria arteko mugan eta irin fabrika- ren aurrien alboan, Arditurriko trenbidearen ontziralekua zegoen. Sorginzulo tunela behin desagertuta, Galtzaraborda mendia- ren hegaletan kokatzen diren Erreterriako auzoetatik itzul- ingurua egin behar dugu (Capuchinos, Versailles, Alaberga). Azken honetatik eta Pontika artean trenbidearen ibilbideak irauten du, baina Gaztañedotik bidea erdi galdurik dago.

Erreterriko zentrotik, bai oinezkoentzako kaleetatik bai bidegorrietatik bai trenbidearen ibilbidetik –Topoaren alboko pista bat- La Fanderiara helduko gara. Autobide azpitik Oartzun ibai- gurutzatu ostean, Oartzun herri- an sartuko da. Artikutzako baso- trenbide meatzariaren arrastoak Arditurriko bidegorriaren alboan ikus daitezke.

Ugaldetxoko gurutze- bidean, ibaiaren ibilguko bidezidor arbo- latsutik jarraituko dugu. Altzibar auzoan, hartxintzarrezko pistak Ergoieneko larreetatik jarraitzen du, zahar itxura duten etxeen albotik. Goi-ibarrean orografia malkartsuak tunel asko eraikitze- an beharra sortu zuen. Olaetxen harana mehartu egiten da, eta lau tunel zeharkatu ostean, Arditurri- ra helduko gara. Paraje hau Aiako harrien oinean kokatzen da, eta bertan, meategietako jardueraren arrasto paregabeekin aurki gaitzke: meazuloak, meatzari- entzako aterpetxea, hondakindegia, ingeniariaren etxea, garbitegia zein labeak. **F**